

Ezkertiarrak omen

Antton Izagirre

Gipuzkoako Foru Aldundiak, egin berri duen inkestaren emaitzetan oinarrituta, herrialdeko biztanleen erdiek pasatxok beren burua ezkertiarizat dutela eman du aditzera. Uste hori bat dator hauteskunderen hautatzen ditugun alderdien emaitzekin alderatzen baldin badugu, baina kontzeptualki ezkertiar izate hori ez da objetiboki baloratu den zerbait, besterik gabe, galdekatutakoen iritzi subjektiboari eginiko argazki hutsa baino.

Badira, erabileraren poderioz oinarritutako zentzua galdu eta etiketa huts bilakatu ditugun kontzeptuak. Demokrazia kontzeptuarekin gertatzen den bezala,

ezkertiarra izatea praktika formaletar mugatzen dugu kasurik gehienetan, eta galdeketak ere formalismo horri erantzuten diolakoan nago.

Ezkerrekoa izateak, ohiko posizio politikoetatik harago, harreman estuak dituedo izan beharko lituzke eguneroko hartu-emanetan sortzen zaizkigun galderei ematen diegun erantzunekin. Zein adierazle erabiltzen ditugu gure ezkertiar izaerari neurria jartzen diogunean? Fida-garriak ote gara bertso librean erantzuten dugunean?

Ikustekoa litzateke, ezkertiar-eskuidar eskalaren baitan, zer gertatuko litzatekeen neurtuko bagenu lan banaketaz,

generoaz, ekologiaz, klima larrialdiaz, berdintasunaz, feminismoaz, soldata arrakalaz, migrazioaz, prostituzioaz, sexu askatasunaz, maitasunaz... ditugun usteak, jarrerak eta praktikak.

Esperientziak esaten dit sarri ez datozela bat, galdeketari ematen dizkiogun “politikoki zuzenak” diren erantzunak eta distantzia motzean, pribatuan, desinhibituta, eremu informaletan ditugun ikuspegiak. Gizarte aldaketarako garrantzitsuak dira egiten ditugun hautu politikoak, baina balio erantsia dutenak gertuko eremuetan hartzen ditugunak dira, eta horiek ez dira galdeketen bidez neurtzen. •

Gabonen zirimola

Miren Azkarate
Badiola

Badatoz Gabonak, batzuk pozpozik eta beste batzuk pasatzea desiratzen. Ni bigarren talde horretakoa naiz, ez ditut inoiz gustuko izan; ez, umetan ere ez! Urteak aurrera joan ahala, gainera, geroz eta gutxiago gustatzen zaizkidala esango nuke, seguruenik kontzienteargo naizelako egun horietan gertatzen denaz: kontsumismo basatiaz. Erosi, erosi, erosi... izan opariak, izan jatekoak eta edatekoak, izan gutiziak... erostegatik bada edozer, izugarria!

Hipokrisia da egun hauetan barra-barra dagoen beste zerbait. Urte osoan zehar ikusi nahi ez dituzun senide horiekin bazkaldu eta afaldu beharra, zergatik eta Gabonak direlako. Edo kalean jendearen artean dagoen poztasun faltsu hori, denak lagunak eta zoriontsu izango bagina bezala. Ez al tristea?

Benoa, eta Gabonetako *Top 10*! Olen-tzero! Hiru Errege Magoak oso espainol geratzen zirenez eta Aita Noel oso yankia, pertsonaia euskaldun bat sortzen dugu eta orain, berdintasunaren izene-

an, ondoan emakume bat jarri, baina beste guztiak ordezkatzeko duen guztia berregiten dugu. Hau guztia, nola ez, kristautasuna barruraino sartuta; Beleen jaio den haurraren antzerki edo errepresentazioak nonahi, abestiak etengabe...

Pentsatzen nuen ni ama izaterako hau guztia aldatuta izango genuela, baina urrutik geratu zait ametsa, gure belaunaldiak zeozker aldatu badu ere, barru-barruraino sartuak baikaude Gabonen zirimolan. •